

**BAZTANGO KIROL-KLUBEK UDALEKO KIROLDEGIA ETA BAZTAN PILOTALEKUA ERABILTZEKO ESKAERA.
2021-2022KO DENBORALDIA.
TXAPELKETAK.**

Eskatutako instalazioa: <input type="checkbox"/> Pilotalekua <input type="checkbox"/> Kiroldegia					
Kirol-kluba:			Helbide soziala:		
FIK:			Erregistro zk.:		
Kirol-klubeko burua:					
Harremanetarako pertsona:				tel.:	e-maila:
Kirol-mota	Maila	Eguna*	Ordutegia	Txap. mota**	Datak (hasi/akitu)
* Zehaztu: Ir.-ig.					
**E: Estatukoa, Lurraldekoa, Nafarroako Kirol Jokoak, etab.					

ESKAERA:

- Epea: 2021eko irailaren 3tik irailaren 10era.
- Aurkezteko tokia: Baztango Udaletxeko erregistroan (Foru plaza, zk.g. 31700 Elizondo) edo erregistro elektronikoen bidez
- ERABILTZEKO BALDINTZAK:
 - Erabiltzeko egutegia: 2021eko irailaren 15etik 2022ko ekainaren 30era.
 - Eskatzen ahal den ordutegia: Larunbatetan 9:00etatik 22:00etara eta, salbuespenezko kasutan, beti eskari arrazoi zintzoak agertzen baldin badira, igandetan 9:00etatik 14:00etara
 - Udalak kirol-instalazioak erabiltzeko baimena edo ezezkoa ematerakoan kasu bakoitzean aldiberean gertatzen diren inguruabarrak kontuan hartuko ditu.
 - Baztango Udalak emandako baimena bertan behera utz edo/eta baimendutako ordutegia egoera berrira egokitu dezake, sortutako beharren arabera.
 - Instalazioa erabiltzeko araudia bete behar da.
 - Baztango Udalak baimendutako programazioa behin baino gehiagotan ez betetzeak edo/eta kirol-instalazioen barne araudia ez betetzeak edo/eta udalak agindutakoa ez betetzeak udalak emandako baimena bertan behera uztea ekar lezake
 - Beharrezko kirol-materiala kirol-klubak berak eraman beharko du.
 - Kirol-pistan kirol-oinetako (zola idor eta garbikoak) eta kirol-arropa egokiek sartu behar da.
 - Kirol-instalazioan ezin da publizitate kartel iraukorrik paratu.
 - Instalazioan, bakar-bakarrik, baimendutako jarduerari dagozkion materialak sartu daitezke eta inoiz ibilgailurik, karrozik, orgik, eskorgik edo bertzelako edozerik zola hondatzen ahal duena
 - Eskatzaileak instalazioko zola ez hondatzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu
 - Klub eskatzailea instalazioaren erantzule izanen da baimendutako egun eta orduetan. Beraz, kirol-klubek antolatzen dituzten kirol-ekitaldietako erantzukizun guztia kirol-klubek berek izanen dute. Hori horrela, instalaziora, harmailak barne, eskatzaileak baimendutako pertsonak bakarrik sartzen ahal izanen dira, eta eskatzaileak izanen du instalaziora sartzen diren pertsonak kontrolatzeko eta sarbide-kontrolaren ardura.
 - Eskatzailearen ardura izanen da instalazioa garbi eta egoera onean uztea.
 - Eskaerarekin batera txapelketako egutegia aurkeztu behar da.
 - Eskatzaileak, edozein aldaketa balitz aurrikusitako erabilera egutegian, jakinarazi behar dio, lehenbailehen, aldaketa hori bai instalazioko arduradunari (kiroldegia tel. 607251955; frontoia tel. 948452145) bai kirol teknikariari.
 - Eskatzaileak Baztango Euskararen Ordenantza bete behar du.
"41. artikulua. Baztango Udalak, udalerrian egiteko, diruz laguntzen dituen kultura, kirol edo bertzelako jardura eta aktibitateetan, bai eta haien idazki, iragarki nola karteletan ere, euskarari lehentasuna eman

beharko diote antolatzaileek.

42. artikulua. Baztango Udalak euskara erabiltzeko gonbita egingen die udal instalazioak eta materiala erabiltzeko eta besta egunetan barrakak paratzeko baimena eskatzen dutenei. Horrekin batera, Udalak jakinaraziko die, behar izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzuaren hizkuntza aholkularitzaz baliatzen ahal direla.”

17. Eskatzaileak instalazioaren irekiera eta itxiera koordinatzeko jakinarazi behar dio instalazioko arduradunari instalazioa erabili beharreko egunak eta orduak.
18. Adingabeek arduradun bat izanen dute beti.
19. Eskatzaileak onartzen ditu eskaera-orri honetan eta Baztango Udalak idatzitako COVID-19 protokoloan zehaztatutako baldintzak.